

{ txostena } Jose Angel Oria

LAN ESKUBIDEAK MUNDUAN

Langileen eskubideen errespetuaren arabera nazioarteko sailkapena eman du ezagutzera ITUCek

Langileen eskubideen errespetuaren arabera nazioarteko sailkapena eman du ezagutzera ITUC Nazioarteko Sindikatu Konfederazioak. ITUCen Eskubideen Mundu Mailako Indizeak 139 herrialde sailkatu ditu, nazioartean onartzen diren 97 adierazleren arabera. Egileen asmoa da langileen eskubideak behar bezala non babesten diren eta non ez argitzea, legerian zein praktikan.

«Danimarka eta Uruguai bezalako herrialdeak ageri dira sailkapeneko lehen postuetan lan-arloko legeria sendoa dutelako. Agian arreta gehiago erakarriko du beste herrialde batzuk, Grezia, AEBak eta Hong Kong esaterako, atzean geratu izana», adierazi die kazetariei Sharan Burrow ITUCeko idazkari nagusiak.

«Esperientziak erakutsi digu herrialde jakin baten garapen maila ez dela adierazle egokia negoziazio kolektiborako, baldintza duinak eskatzeko greba egiteko edo sindikatu bateko kide bihurtzeko oinarritzeko eskubideak errespetatzen diren ala ez erabakitzeko», erantsi du Sharan Burrowek.

Azken 30 urteotan mundu osoan egin diren eskubide sindikalen abusuen inguruko informazioa bildu dute ITUC konfederaziokoek. Aurten lehen aldiz, ITUCen Eskubideen Mundu Mailako Indizeak azken hamabi hilabeteotan arreta handiz egiaztatutako informazioa aurkeztu du, edonork erraz erabiltzeko moduko formatuan gainera, gobernu eta konpainia guztiek ikus dezaten beren legeriak nola egokitzen diren beren hornidura-kateetan duten egoeretara.

139 HERRIALDE

ITUCen Eskubideen Mundu Mailako Indizeak sei multzotan ipini ditu aztertutako 139 herrialdeak. Langileen eskubideak ondoen errespetatzen dituzten herrialdeak 1. multzoan ipini ditu, horietan eskubideak bortxatzea ezohikoa izaten baita. Guztira 18 herrialde daude bertan, Danimarka eta Uruguai barne.

139

ITUCen Eskubideen Mundu Mailako Indizeak 139 herrialde sailkatu ditu, nazioartean onartzen diren 97 adierazleren arabera.

18

Langileen eskubideak ondoen errespetatzen dituzten herrialdeak 1. multzoan ipini ditu sailkapenak, horietan eskubideak bortxatzea ezohikoa izaten baita. Guztira 18 herrialde daude bertan, Danimarka eta Uruguai barne.

Langileen eskubideen bortxaketak errepikatzen diren tokiak 2. multzoan ageri dira. 26 herrialde daude bertan, Japonia eta Suitza barne.

Bortxaketak ohikoak diren lekuak 3. multzoan ipini dituzte sailkapenaren egileek. Bertan 33 herrialde ageri dira, Txile eta Ghana esaterako.

Langileen eskubideen bortxaketak sistematikoak izaten diren tokiak 4. multzoan jarri dituzte.

30 herrialde daude bertan, horien artean AEBak eta Kenya dira nabarmentzeko modukoak.

Langileen eskubideak bermatu gabe dauden lekuak sartu dituzte 5. multzoan. Kasu honetan 24 herrialde ageri dira, Europako Bielorrusia eta Asiako Bangladesh eta Qatar esaterako.

Zuzenbide Estatua desagiteko prozesu betean den herrialdeak dira langileontzat okerrenak, ITUCekoek 5+ multzoan ipini di-

tuztenak. Zortzi herrialde daude gaur egun egoera horretan: Libia, Palestina, Afrika Erdiko Errepublika, Siria, Somalia, Sudan, Hego Sudan eta Ukraina.

GIZARTE ZUZENAGOA

ITUC Nazioarteko Sindikatu Konfederazioa 2006ko azaroaren 1ean sortu zuten, CIOSL eta CMT erakundeetan esku hartzen zuten sindikatuak bat egin zutenean. Gaur egun 161 herrialde-tako 325 erakunde daude ITUCen sartuta. 176 milioi langile dira sindikatu horietako kide, %40 inguru emakumeak.

«Gizarte zuzenago eta arrakastatsuago baten bermea da langileek beren eskubideak era askean erabiltzeko aukera izatea», diote txostenaren egileek. «Langileek ahots kolektibo bat izatearen askatasunaz goza dezaketenean, lan baldintzak eta soldatak justuak direnean eta beren lanpostuak seguruagoak izan daitezten negoziatzeko aukera izaten dutenean, eta bazterketarik gabe lan egiteko aukera izaten dutenean, produktibitateak eta hazkunde ekonomikoak gora egin dezakete», erantsi dute.

Baina ez dituzte gauzak beti horrela ulertzen herrialdeetako agintariek zein konpainietako zuzendaritzek. «Bazter guztietan, ordezkaritza kolektibo bat izateko eskubidearen aldeko borroka egin behar izaten dute langileek; eta itxurazko lanpostuak gero eta gutxiago izaten dira herrialde gehienetan. Eskubideen bortxaketek gora egiten dute behera egin beharrean eta herrialde askotako agintariek ez dute ezer egiten langileen eskubideak babesteko», esplikatu dute ITUC konfederaziokoek.

LANGILEAK KALERATU

Erakundean esku hartzen duten sindikatuak bidalitako txostenek diotenez, gutxienez 53 herrialdetan lan baldintzak hobe-



Orrialde honetako irudian, Afganistango langile bat aluminiozko pieza bat egiten Herat hirian. Aref KARIMI | AFP

Hurrengo orrialdeko irudian, pakistandar bat bidoiak eramaten. Farooq NAEEM | AFP